

Kaixo LABkide!

Azken urteotan Eskolak Euskaldundu plataformatik indarrak bildu eta eskolak Euskal Herri osoko ikasleak euskalduntzeko eskaria kalera atera dugu, herritarren hitza agintarien aurrean argi azalduz. Horren erakusle Euskal Herrian egin den sinadura bilketarik handienetakoa: 107768 herritarrek babestu zutena

Sinadura bilketak eta ondoren egindako mobilizazioek neurriak hartzera bultzatu dituzte hiru administrazioak, tamalez, mahai gainean jarri dituzten proposamenek ez diete inondik inora erantzuten herritarren eskariei.

Une honetan hiru proposamen berri daude mahai gainean: Euskararen Erakunde Publikoaren Hizkuntza Plangintza; Nafarroako Gobernuaren Vasconcearen Institutua eta Gasteizko Gobernuaren Hizkuntza Ereduen Proposamena. Hitz politikak eta egunerokotasunean egiten dituztenak kontraesanean daude.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan egin berri duten Lan Eskaintza Publiko berrian Lanbide Heziketako irakasleen %37ari ez zaio hizkuntza perfilik eskatzen; etorkinak A eredura bideratzen dituzte; Lanbide Heziketako ia modulu guztiak gaztelera izaten jarraitzen dute; UPVn aurkeztutako hizkuntza plangintza berriak, zaharraren helburu berberak errepikatzen ditu.

Nafarroa Garaian "Hello" izeneko Haur Eskola elebidunak irekitzen ari dira, gaztelera-ingeleskoak!; Lehen Hezkuntzan British Eredua bultzatzen dute, gaztelera-ingelerakoa hau ere; unibertsitatea euskalduntzeko planik ez dago.

Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan euskarak hezkuntzan bizi duen egoera negargarria gainditzeko proposamen seniorik ez egiteaz gain, irakasle euskaldunak kontratatzeari ere oztopoak jartzen dizkiote.

Egoera honen aurrean erantzun indartsua eman beharra dago eta hortara goaz. Gaurtik hasita eta otsailera bitartean mobilizazioak egin eta milaka salaketa postal bidaliko dizkiegu hezkuntza arloan ardura nagusiak betetzen dituzten Tontxu Campos, Max Brisson eta Perez-Nievasi.

Euskal Herritarrei herriz herri eta ikastetxez ikastetxe banatuko ditugun milaka postalak izenpetzeko deia egiten dizuegu. Honekin batera hurrengo asteotan egingo ditugun mobilizazio deialdietan parte hartzeko gonbidapena ere egin nahi dizuegu.

Pasa egoitzarik postalak jasotzera zure ikastetxean banatzeko. Zalantzarik baduzu deitu edo emailaz argituko dizkigu.

Euskal Herrian, 2008ko urtarrilaren 16an

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039	Rekalde Zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021
irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org	baiona@labsindikatu.org



iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du!

IRUZURRIK EZ! ESKOLAK EUSKALDUNDU BEHAR DU!

Aztkerrek eta hainbat erakunde egindako ikerketek dioten bezala, eskolak Euskal Herrian ikasleen %35 soilik euskalduntzen du. Ereduen politikek porrot nabarmena jasan dute, aldaketa sakonak eta berehalakoak behar ditugu.

05/06 ikasturtean 107768 herritarrek Euskararen Erakunde Publikoari, EAEko Hezkuntza Sailari eta Nafarroako Hezkuntza Sailari aldaketa sakon horiek egiteko eskatu zieten beraien sinadura emanaz. Zein izan da erantzuna? Euskalduna izateko eskubidea bermatu ezin duten lege eta plan berrien aukera mahai gaineratzea.

Nik _____
____k, _____ NA zenbakia duenak, Max Brisson, Tontxu Campos eta Carlos Perez Nieves-i aski dela esan nahi dizuet. Kokoteraino nagoela iruzur eta inposaketez, herritarren hitza eta eskolak euskaldundua izateko eskubidea ez dutelako bermatzen zuen politikek. Salaketa honekin batera, idatzi hau sinatzen dugunok, euskaldunduko duen eskolaren alde Euskararen Ofizialtasuna bermatzeko eta Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeko konpromisoa hartu dugula adierazi nahi dizuegu.

Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena

iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du!

iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du!

iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du! iruzurrik ez! eskolak euskaldundu behar du!